

## EUSKOTRENEK TREN ZERBITZUA INDARTUKO DU ASTEAZKENEAN S.D.EIBAR – RAYO VALLECANO NORGEHIAGOKA DELA ETA

Euskotrenek tren zerbitzua indartuko du asteazkenean S.D.Eibar eta Rayo Vallecano taldeek jokatuko duten futbol partidua dela eta. Partidu hori Ipuruan apirilaren 3an 20:30ean jokatu da.

Zerbitzua indartzen duten tren bereziek ohiko geldialdiak egingo dituzte gainerako geltokietan. Tren zerbitzuek honako ezaugarri hauek izango dituzte:

### **NORGEHIAGOKAREN AURRETIK**

Partidu aurretik, zerbitzua tren erregularren bitartez eskainiko da:

- Durango – **ARDANTZA** (Eibar): 19:39 an
- Ermua – **ARDANTZA** (Eibar): 20:02 an, 20:12 an
- Deba – **ARDANTZA** (Eibar): 19:43 an

### **NORGEHIAGOKAREN ONDOREN**

- **ARDANTZA** (Eibar) - Durango: 22:45ean
- **ARDANTZA** (Eibar) – Elgoibar: 22:45ean

Gainerako trenek bere ohiko ordutegia mantenduko dute.

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen 944 333 333 telefono zenbakira dei dezakete. Horrez gain informazioa jaso dezakete geltokietan eta geralekuetan eta konpainiaren [www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus) web gunean, [@euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV) twitter gunean eta APP ofizialean

Igorpen data : 2019ko apirilaren 1ean